


Euskal AEko migrazio saldo positiboa 2007an 17.000 pertsonaren gaineretik dago, %22,4 hazi delarik

Euskal mugikortasun geografikoa oso urria da gainerako erkidegoenarekin alderatuz gero

Eustaten datuen arabera, 2007. urtean Euskal AEn 17.692 gehiago izan ziren etorritakoak joandakoak baino; 2006.aren aldean %22,4ko hazkundea.

Erkidegorako migrazio-saldo positiboa duen ondoz ondoko zortzigarren urtea dugu hau. Lurraldeka, Bizkaiak 9.098 pertsona gehiago izan ditu; kopuru absolutuetan migrazio-saldorik altuena, eta aurreko urtekoaren aldean %16 gehiago. Gipuzkoak 4.198 pertsona irabazi ditu, aurreko urtean baino %26 gehiago. Arabak 4.396, %36 gehiago.

1. grafikoa.- Migrazio-saldoaren bilakaera Lurralde Historikoen arabera



Iturria: EUSTAT

Migrazio saldo positiboa atzeritik etorritakoei esker izan da.

Atzerriko etorkinen migrazio-saldoa positiboa da; 19.884 pertsona, eta horrek, aurreko urtekoaren aldean, %9,6ko gehikuntza ekarri du. Euskal AEren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko mugimenduak bakarrik kontuan hartuz gero, 2007. urtean -2.192 pertsonakoa da galera migrazio-saldotan.

Euskal biztanleriaren %9,4k bizileku aldaketaren bat egin du 2007. urtean zehar. Mugimendu hori %67an Euskal AE barruan izan da, eta gainerako kasuetan erkidegotik kanporakoa.

Euskal AEn, guztira, 199.608 kasutan aldatu dira ohiko bizilekuak:

- Kopuru horretatik, 89.600 kasutan udalerrian bertan aldatu dira bizilekuak.
- Erkidego barruko mugimenduak, hau da, bai jatorria, bai helmuga Euskal AEko udalerrietan dituzten mugimenduak 44.978 izan dira.
- Era berean, kanpoko edo erkidegoz kanpoko 41.361 immigrazio gertatu dira. Jatorria gure erkidegoz kanpoko udalerri batean eta helmuga Euskal AEn duten mugimenduak dira horiek.
- Azkenik, kanpoko edo erkidegoz kanpoko 23.669 emigrazio gertatu dira. Jatorria gure autonomia-erkidegoko udalerri batean eta helmuga gure erkidegotik kanpora duten mugimenduak dira horiek.

1. taula. Migrazio-mugimenduen eta saldoen bilakaera. Euskal AE.

Urtea	Emigrazioak		Inmigrazioak		Migrazio-saldoa
	Guztira	Aldakuntza Indizea (1988=100)	Guztira	Aldakuntza Indizea (1988=100)	Guztira
1988	18.103	100	8.014	100	-10.089
1992	13.668	76	9.006	112	-4.662
1995	16.130	89	11.316	141	-4.814
1999	17.291	96	16.103	201	-1.188
2000	17.462	96	20.022	250	2.560
2001	18.696	103	25.775	322	7.079
2002	19.730	109	25.967	324	6.237
2003	22.216	123	28.467	355	6.251
2004	21.304	118	30.328	378	9.024
2005	20.672	114	33.993	424	13.321
2006	22.689	125	37.147	464	14.458
2007	23.669	131	41.361	516	17.692

Iturria: EUSTAT

Kanpoko edo erkidegoz kanpoko mugikortasunari dagokionez, 2007. urtean AEko mila biztanletik 30,5 mugitu dira (%37,5 Araban, %30,7 Bizkaian eta %27,1 Gipuzkoan); alabaina, mugikortasun hori gainerako autonomia-erkidegoetakoarekin erkatuta txikia da, azken hauetan mila biztanletik 51 mugitzen baitira.

AEra bertatik jasotzen dutena baino gehiago ekartzen duten erkidegoak hauek dira: Murtzia, Katalunia, Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Valentzia eta Aragoi.

Euskal AEko emigratzaileentzat, honako **autonomia-erkidego** hauek dira **erakargarrienak**, hurrenkera honetan: Kantabria, Gaztela eta Leon, Nafarroa, Errioxa, Galizia eta Madril. Seiren artean, gure erkidegotik irtendako bi lagunetik bat hartzen dute.

Atzerriko nazionalitatea duten **etorkinak**, 2007. urtean, 28.928 pertsona izan ziren; gure erkidegora izandako sarreren %70. 2.000.ean hasi ziren migrazio saldo positiboak; harrezkeroztik Euskal AEn atzerritarren immigrazioen bolumena asko igo dela ikusi dugu. 2007. urtean atzerriko nazionalitatea duten etorkinen kopurua %19 hazi da; horien arteko 7.113 beste erkidegoren batetik etorri ziren.

Titulu-mailari dagokionez, lehen mailakoa dute immigrazioen %54k eta emigrazioen %52k; goi-mailako titulua emigrazioen %16k eta immigrazioen %15ek dute.

Emigratzaileen **batez besteko adina**, 35,1 urte, handiagoa da etorkinena (30,9) baino.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

+Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp